

# Zelako euskaldunak, halako kopurua..., edo Soziologiaren erantzuna

*Iñaki Martínez de Luna*  
(i.martinezdeluna@ehu.es)

## Laburpena

*Euskaldunak, zenbat?* Galdera “inozo” horrek ez du erantzun errazik. Erantzuna bilatu baino lehen, euskaldun izatea zer den zehaztu behar da. Gizatalde baten kultura eta hizkuntza sozializazioaren bitartez gure egiten baditugu, zenbateraino betetzen da prozesu hori euskarari dagokionez? Puntu hori argitzeko Soziologiaren makulua baliatuko dugu.

## Edukia

- ✓ Euskaldunen kopurua (I)
- ✓ Gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen
- ✓ Sozializazioa eta hizkuntzaz jabetzea, parez pare
- ✓ Sozializazioaren prozesuak eta motak
- ✓ Euskaingintza, jakinaren gainean

- ✓ Umeek ikusten dutena: zein hizkuntza doakie hobeto?
- ✓ Umeek ikusten dutena: zer ikusi, hori irudikatu
- ✓ Hausnarketak eta ondorioak: Euskaldunen kopurua (II)

## **Euskaldunen kopurua (I)**

Euskara berreskuratzeko ahaleginak ematen ari diren emaria eba-luatzerakoan bi aldagai gailentzen dira: gaitasunaren hedapena eta erabileraren bilakaera. Hemen, “*Euskaldunak, zenbat. Zelako euskaldunak*” galderarekin gaitasunaz ari gara, baina horrek zenbait zalantza pizten ditu.

Adibidez, hizkuntza-gaitasun mota asko daude, hizkuntza-erabile-ren arabera, ohikoenak honako hauek izanik: ulertzeko gaitasuna, hitz egiteko gaitasuna, irakurtzeko gaitasuna eta, azkenik, idazteko gaitasuna. Horiek bakarrik kontuan hartuta, baditugu lehenengo zalantzak: lau gaitasun mota horiek garatuak eduki behar dira hizkuntza jakin batean jarduteko gaituta gaudela esan ahal izateko, ala lehenengo biek nahikoa da, alegia, *soilik* ulertzeko eta ahozko gaitasunen jabetuta egonda?

Gaitasuna dela eta, beste galdera batzuk ere egin litezke “*Euskaldunak, zenbat. Zelako euskaldunak*” galderari erantzuteko ahalegine-tan. Horietako bat elebakarren gaitasunari eta elebidunen gaitasun erlatiboari dagokien sailkapenaren ingurukoa litzateke, hainbat ikerketatan<sup>1</sup> egiten den bezala; alegia, zenbat eta nolako *elebidun*<sup>2</sup>, *elebi-dun hartzaile* eta *erdaldun elebakar* diren galdetuz. Baina, horietatik zeintzuk dira euskalduntzat jotzen ditugunak edo, hobeto esanda,

---

<sup>1</sup> Adibidez: Eusko Jaurlaritzak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzak.

<sup>2</sup> Elebidunen artean hiru mota hauek bereiziz: *euskal elebidunak*, *elebidun orekatuak*, *erdal elebidunak*.

bene-benetan euskalduntzat hartu beharko liratekeenak? Den-denak ala batzuk baino ez? Hortaz, gaitasunari erreparatuz gero, aurretik halako zalantzak argitu beharko lirateke.

Dena den, “*Euskaldunak, zenbat. Zelako euskaldunak*” galderari erantzuteko nahikoa ote gaitasunari erreparatzea? Gaitasunaren araber ager litezkeen baldintzak aldekoak balira ere, horiek nahikoa ote dira euskaraz dakiten guztiak euskalduntzat jo ahal izateko? Bestela esanda, gaitasunak agortzen ote du euskaldun izaera bere osotasunean ala planteamendu horrekin izaera horren beste zerbait kanpo gelditzen zaigu?

### **Gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen**

Erantzun bila, has gaitezen hausnartzen gizakiak mundura jaio ondoren dituen lehenengo bizi-baldintzei buruz, aldi berean hastapen horrek hizkuntza-prozesuarekin antzekotasunik ote duen bilatzen.

Oro har, munduaren luze-zabalean hedatu den teoriak<sup>3</sup> dioenez, gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen, egin egiten gara, prozesu luze baten ondorioz. *Era berean, gizakiok ez gara hiztun-komunitate kide bateko partaide jaiotzen, egin egiten gara, honetan ere, prozesu luze baten ondorioz:*

- ✓ Jaiotzean, gizakiak taldearen abegiaren eta babesaren beharra du, funtsean ezindua delako. *Eta muga zein ezintasun horiek hiztun izaeran ere gertatzen dira: jaioberriak ez daki inolako hizkuntzarik.*

---

<sup>3</sup> Berger, P. eta Luckmann, Th. (1968). *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires. Amorrortu (164. orrialdetik aurrera).

- ✓ Halere, espezie bezala gizakiak ikasteko gaitasuna badu. Are gehiago, ikasitakoa komunikatu eta igortzeko gaitasuna ere bai. *Gizakia hazi ahala hizkuntzaz jabetuko da, arian-arian, hizkuntza hori erabiltzeko gauza izatera iristeraino, besteak beste hizkuntza komunikazio tresna gisa erabiliz.*
- ✓ Hortaz, gizakiak, behin jaioz gero, birjaiotzen segitu behar du; taldera alegia, taldekide bihurtzeko. *Eta taldekide bihurtzearekin batera hizkuntza-komunitate batera (edo batzuetara) ere birjaiotzen da, hizkuntza-komunitateko kide bihurtuz.*
- ✓ Gizakiak duen oinarrizko ahulezia era horretan saihesten du: sozializazio edo gizarteratzearen bitartez. *Era berean, jaioberriak duen hizkuntza-gabezia ere hizkuntzaz jabetze-prozesuaren bitartez gainditzen du.*
- ✓ Sozializazio prozesu hori modu askotan gauza daiteke; izan ere, zenbat kultura hainbat sozializazio. *Era berean, jaioberria non jaio, nolako hizkuntza komunitatetan sortu, halako Lehen Hizkuntza; hortaz, zenbat hizkuntza-komunitate, hainbat Lehen Hizkuntza edo hainbat hiztun mota.*

Azken buruan, sozializazioak bi maila horietan eragiten du, aldi berean: jaioberria taldekide zein *hizkuntza-komunitateko kide* bihurtuz. Hona hemen sozializazioa ongi definitzen duen pasarte bat:

*...el proceso por medio del cual la persona humana aprende e interioriza, en el transcurso de su vida, los elementos socioculturales de su medio ambiente, los integra a la estructura de su personalidad, bajo la influencia de experiencias y de agentes sociales significativos, y se adapta así al entorno social en cuyo seno debe vivir.<sup>4</sup>*

---

<sup>4</sup> Rocher, G. (1980). *Introducción a la sociología general*. Barcelona. Herder. (133-134).

Difinizioak definizio, hona hemen Fernández Palomares-ek egiten duen sozializazioaren deskribapena:

*La socialización hay que verla, pues, situada en el contexto global de la sociedad como marco general de relaciones sociales; relacionada con otros ámbitos sociales como la economía, el poder y la política, la ideología...<sup>5</sup>*

Sozializazioaren baitan gizarte-osagai horiek guztiak kontuan hartzen badira, eta sozializazio hori gauzatzen den harremanak ikusita, sozializazio horretan hizkuntza ere egongo dela inor gutxik jarriko luke zalantzan.

### **Sozializazioa eta hizkuntzaz jabetzea, parez pare**

Sozializazioaren eta hizkuntza-prozesuaren arteko lotura eta antzekotasuna aztergai dugula, ondoko lerroetan parez pare jarriko ditugu biak ala biak, ahalegin horretan sozializazioaren zenbait ezaugarriren analititik abiatuz. Izan ere, sozializazioak badu hainbat ezaugarri, hizkuntzaren ikuspuntutik begiratuta, aipagarriak bezain erabilgarriak direnak:

1. Sozializazioa, batez ere, prozesu informaldaren bitartez burutzen da, ez irakaskuntza formalaren bitartez. Arau eta balioen formulazio inplizituak esplizituak bezain garrantzitsuak dira. Hor-taz, sozializazioa ikaskuntza prozesua da, baina ikaskuntza guz-tiak ez dira sozializazioak. Ohiturak eta praktikak barnetatzen dira, batez ere. Ez ezagutza intelektualik:

✓ Azalpen edo ezagutza mailan: gizarte osagaiak eta harreman-en funtzionamendua ulertzea da helburua. *Hizkuntza bizia*

---

<sup>5</sup> Fernández Palomares, F. (2003) Socialización y escuela. In Fernández Palomares, F. (koord.) *Sociología de la educación*. Madrid. Pearson Educación.

*ikasten da, hiztun-komunitateak erabiltzen duena eta ez hizkuntzaren ezagutza formala: gramatika, adibidez.*

- ✓ Legitimazioa edo justifikazioa (balioak): balorazio etikoa ematen zaie gizarte osagaiei eta harremanen funtzionamenduari. Gizarte horren legitimazioa transmititzen da. *Hizkuntzari ere hainbat balio atxikitzen zaio, gizartean dauden hizkuntza-irudikapenak helaraziz: estimatu ala mesprezatu beharreko hizkuntza den, maitatu edo gorrotatu beharrekoa, erabilgarria ala bazterrekoa den...*
- 2. Ikaskuntza horretan gizataldeko kultura barneratu ez ezik gizakia bere jokabideak eta portaerak kultura horren arabera doitzen doa. Gizakiak harreman sozial sare konplexu bat barneratu behar du; familian, eskolan, herrian... nola jardun behar duen ikasten du. Izan ere, sozializazioan gizarte edo gizatalde bateko rolak egiten ditugu gure, eta barneratzen ditugun rol horien arabera jokatu dugu, hein handi batean. *Hizkuntzari dagokionez, ikasten dugu non/zer/norekin zein hizkuntza edo aldaki erabili behar den: lagun koadrilan hizkuntza eta erregistro jakin batzuk, aiton-amonekin edo eskoletan, lanean... beste batzuk. Hizkuntza-kodeen eta hizkuntza horren erabilerarako arauen multzo konplexu bat barneratzen da, gizarte-egoera mota guztietan.*
- 3. Sozializazioaren eskutik gizakiaren txertatze soziala bilatzen eta burutzen da; gizakiak talde batekin egiten du bat, aldi berean beste gizataldeetatik aldentuz. Alegia, gu/ besteak zehaztu eta ezberdintzen ditu. *Era eta aldi berean, hiztuna hizkuntza-komunitate bateko kide bihurtzen da, beste hizkuntza-komunitate kideekiko aldeak argi utzita: euskalduna versus galegoa, frantsesa, espainiarra... Hitztun berria hitzun-komunitate propioan txertatzen da.*

4. Gizakiak gizartea ulertzen du eta bertan parte hartzen du. *Gizakiak hizkuntza ikasi eta hizkuntza-komunitate horretan parte hartzen du: hizkuntza erabiltzen du, horko hiztuna bihurtuz.*
5. Horrela jokatu, ingurune edo taldearekiko atxikimendua eta talde horren kohesioa lortzen dira. *Hizkuntza bera partekatzen dutenen artean hizkuntza-komunitatea sortua da, eta bertan badaude hurbiltasuna eta konplizitatea, beste hizkuntza bat dutenekiko distantzia markatuz.*
6. Gizaki bihurtzarekin batera, sozializatzen denak gizarte edo talde horren biziraupena bermatzen du. Sozializazioa gizarte erreproduzioaren berme-emaitza da. *Hizkuntza-komunitate bateko kide egitearekin batera, hizkuntza-komunitate horren biziraupena ziurtatzen da.*
7. Sozializazioa bizitza osoan zehar gertatzen den prozesu amaigabea da, eta elkarrekintza sozialaren bidez eten gabe ari gara ikasten. *Hizkuntzak eta hizkuntza-komunitateak bizirik dirauten bitartean, hiztuna ere etengabe ari da hizkuntza ikasten, hizkuntzaren premia berrietara egokitzen.*
8. Sozializazioa, gizarte ordenaren barneratzea den aldetik, gizarte kontrolaren mekanismoetako bat da, sozialki dagozkigun rola betetzea barneratuta daukagu eta. *Hizkuntza ikastearen ere hizkuntza horren erabilera zuzenak eta egokiak barneratzen ditugu, gramatikalak zein sozialak: nola eta nolako terminologia, erregistroak eta abar, erabili batekin edo bestearekin.*
9. Sozializazioak, alabaina, ez du gizartearen determinazio osorik lortzen, portaerari dagokion adostasun maila bat baizik; inolaz ez berdintasun zurrunik eta saihestezinik. Gizartearen partaide aktiboak gara, hots, arau egileak eta igorritako balioetan berrikuntzak eta aldaera berriak ager daitezke. *Hizkuntzak ere ez dira era zurrunean eta aldaezinean transmititzen eta, izatez, belaunaldien artean*

*diz belaunaldi aldatzen doaz. Gizarte balioen eta arauen modura, hizkuntzen bilakaerak eta aldakuntzak ez dute etenik, denboran zehar eta hiztunen eskutik: hiztunak, hizkuntzan eragiten du.*

Azken buruan, gizakiak gure testuinguruaren emaitza gara, ez determinismo hutsaren eskutik, baina bai neurri handian. Aldi berean, sozializatzen den gizakiak sozializazio hori gertatu den ingurugiroan eragiten du, gutxi asko. *Hiztuna ere bere hizkuntza-komunitatearen emaitza da, baina barneratu eta bere egin duen hizkuntza hori eraldatzen du, aldi berean.*

Areago, sozializazioa eta lehen hizkuntzaren ikasketa eskutik helduta doaz, edo, nahiago bada, hizkuntzaren ikasketa sozializazioaren atal bat baino ez da. *Gizartekidearen kasua izan zein hiztunaren kasua izan, zer ikusi, hura ikasi!*

Ondorio garbi batera iritsi gara: orain arte sozializazioa eta hizkuntza-ikaskuntza parez pare aztertu baditugu ere, hemendik aurrera aurpegi asko duen prozesu bakar baten atal gisa ulertu beharko dugu: *hizkuntza-sozializazioa*, alegia. Gizartea eta hizkuntza, bikote banaezina da. Hortaz, sakondu dezagun sozializazioaren gorabeheretan, hizkuntza bere baitan daraman prozesu hori hobeto ulertzeko.

## **Sozializazioaren prozesuak eta motak**

Sozializazioan hiru prozesu bereizi behar dira:

- ✓ Lehendabizi, *psikologikoki*, sozializazioa ikaskuntza da, gizatalde jakin baten kultura gizakiari irakasten zaio eta. **Prozesu kognitiboa** da. *Hizkuntzaz jabetzea ere prozesu kognitiboa da, hiztun-komunitate bateko hizkuntza irakasten da: hiztegia, sintaxia edo joskerak, fonetika, aditz-jokoa, hizkuntzarekiko gizarte-arauak...*
- ✓ Bigarrenik, *soziologikoki* eta *antropologikoki*, sozializazioa ez da eduki batzuk transmititzera mugatzen, inkontzienteki eta hala-

beharrez eduki horiek bere egiteaz gain gizakia berekin identifikatzen delako: nazioa, erlijioa, etnia, kultura, ogibidea, statusa... **Identifikazio prozesua** da. *Hizkuntza ere esanahi horietako guztiekin edo, gutxienez, batzuekin “kutsatua” da: nazioa, etnia, kultura, ogibidea, statusa..., hizkuntza horretaz jabetzen den hiztun berria hizkuntza horrekin identifikatzeraino iritsiz (nire/gure hizkuntza); euskaldun sentitzeraino, gure kasuan.*

- ✓ Hirugarrenik, gizakiak gizarte bizikidetasuna, elkarrekintza, komunikazioa, afektua eta gorputz ukipena ere behar ditu, eta ez nolanhikoak, kalitatezkoak bazik. **Prozesu afektiboa** da. *Hizkuntzarekin, beste horrenbeste gertatzen da, adibidez, tankera honetako ideiak barneratuz: gure euskera maitea, etxeko hizkuntza preziatua (euskara) versus hizkuntza arrotza (erdara), bertako jatorriko hizkuntza versus kanpoko hizkuntza inposatua...*

Gizarte irakaskuntza horrekin batera, badaude beste osagai batzuk ere: herentzia biologikoa eta norberaren eskarmentua. *Herentzia biologikorik agian ez, baina, norberaren eskarmentua argi dago oso inportantea dela hiztun baten izaeran eta bilakaeran; adibidez: hizkuntza bat erabiliz eroso sentitu ala ez, integratuta ala baztertuta sentitu, gaitasun mugatuak sortarazitako konplexua edo gaitasun osoak eragindako harrotasuna, euskara erabili nahi izateagatik sortarazitako arazoa, euskara gogoz kontra ikasi/erabiltzera behartua sentitzeagatik...*

Osagai horiek elkarri eragitetik, gizaki eta nortasun bakar eta errepika ezina sortzen da. Gizakia gizarteko kidea da egindako aurkezpen horiek guztiak barneratuak dituenen: orduan dago sozializaturik. *Hizkuntzaren osagai eta ezaugarri horien elkar eragitetik hiztun bakar eta errepika ezina sortzen da: euskaldun jakin bat.*

Horregatik guztiagatik da sozializazioa hain garrantzitsua giza-kiengan (*eta hiztunenengan*) eta prozesu interesgarri horren nondik norakoak hobeto ulertu ahal izateko, jarraian aztertuko ditugu, azale-

tik bada ere, prozesu horretan bereizi ohi diren aldiak eta beren ezau-garriak. Izan ere, horrek asko lagun diezaguke hizkuntza baten jabe-tze-prozesua eta gorabeherak hobeki ulertzen.

Bi sozializazio mota bereizten dira, gehienbat: Lehen Sozializazioa eta Bigarren Sozializazioa. Hala ere, gizarte garaikideetako hainbat aldaketa gertatu eta egoera berri agertu eta gero, Hirugarren Soziali-zazioaren ideia ere sortu eta garatu da. Hemen hirurak izango ditugu hizpide.

**Lehen Sozializazioa:** Hau da sozializatorik funtsezkoena eta haurtzaroen gertatzen da. Bizitzan zehar erabiliko diren oinarriko gizarte kategoriak orduan barneratzen dira: sexu eta generoaren araberako banaketak, ongiaren eta gaizkiaren arteko bereizketa eta abar.

Sozializazio hau familian zein eskolan burutzen da, *Beste Esangu-ratsuen* bitartez; alegia, haurrarentzat erreferente garrantzitsuak diren agenteen eskutik: gurasoak, anai-arrebak, maisu-maistrak... Prozesu horretan, mundua ikusteko modu oso bat barneratzen da eta osagai afektibo/moralen nagusitasuna nabarmena da.

*Lehen hizkuntza edo ama hizkuntza etxean ere jasotzen da, haur-tzaroko lehenengo urteetan, familiaren ahotik zuzen-zuzenean. Hiz-kuntza hori izango da aurrerantzean funtsezkoena, barneratuena eta berezkoena hiztun ororentzat. Euskaldunen artean, hemen koka daitez-ke lehen hizkuntza euskara dutenak, alegia, gaur egun haur eta gazte euskaldunen gutxiengoa direnak.*

**Bigarren Sozializazioa:** Familiaz aparte burutzen da, neurri han-dian: hezkuntza sisteman, lagunartean eta komunikabideen bitartez, bereziki. Gutxi gorabehera, nerabezaroen hasten da eta *Beste Orokor-tuen* bitartez burutzen da; pertsona jakinetatik haragoko *gizarte-rol* abstraktuak antzematen eta barneratzen dira. Horiek ez ezik, trebezia profesionalak eta politikoak ere ikasten dira. Zenbat eta lan banaketa handiagoa izan, orduan eta konplexuagoa izango da: sindikatuko afi-

liatu, eskola bateko irakasle, estatu bateko herritar, udalerrri bateko auzokide, kirol taldeko entrenatzaile..., jarduten ikasten dugu.

Hortaz, prozesu horretan, azpimundu instituzionaletan nola jardun behar den barneratzen da (lan merkatuan, herritar bezala...). Ikasketa horretan kontuan hartzen diren osagai afektibo/moralak tesuinguru zabalagoetan kokatzen dira. Bigarren Sozializazio hau metodoa eta sistematikoa da, Lehen Sozializazioa ez bezalakoa.

*Euskaldunak direnetatik, etxeko edo familiako (lehen) hizkuntza erdara izanik, euskara bigarren hizkuntza gisa (bezkuntza sistema edo euskaltegiaren bitartez) ikasi dutenak ditugu. Hori bera da, hain zuzen ere, egungo haur eta gazteengan gehien agertzen den euskaldun mota eta, horren ondorioz, ikasitako bigarren hizkuntza hori (euskara) erdara bezain barneraturik ez dute, kasu gehienetan. Nekez izango dira elebidun euskaldunak (euskaraz erdaraz baino hobeto dakitenak) eta, aldiz, erdal elebidunen multzoa osatzen dute, sarri.*

**Hirugarren Sozializazioa:** Azken urteotan hirugarren sozializazioaren ideia sortu da. Sozializazio mota horrekin helduen kasu zehatz bat adierazi nahi da, horren muina honako hau izanik<sup>6</sup>:

- ✓ pertsona helduek ingurune jakin batean ikasi dutena bigarren mailan utzi ...
- ✓ ... eta beste kultura edo gizarte baten arau eta balioak barneratu nahiago edo behar dutenean.

Hortaz, hirugarren sozializazioa transkulturazioan datza. Baina, zer da transkulturazioa? Hona hemen kontzeptu horren definizioa, Euskalterm-en arabera:

---

<sup>6</sup> García Ferrando, M. (coord.) (2005). *Pensar nuestra sociedad global*. Valencia. Tirant lo Blanch (119-121).

*Pertsona batek normalean berea baino sozio-ekonomikoki garatuagoa dagoen beste herrialde bateko kulturaren egindako heziketa edo trebakuntza.<sup>7</sup>*

Hau da, pertsona sortua eta hezia den gizartearekiko, oso bestelakoak diren gizarte edo erreferentzia sistemetan murgiltzea. Eta hori da, hain zuzen ere, migrazioen eskutik mendebaldeko gizarteetan gertatzen ari dena, gizarte horiek etnikoki anitzak edo pluralak bilakatu. Kulturen arteko ukipen egoera horietan, hala talde kultural nagusiek edo gehiengo kulturalak nola talde kultural txikiak edo gutxiengo kulturalak elkarrekin bizitzen ikasi behar dute. Kultura eta etnien arteko sozializazio hori Hirugarren Sozializaziotzat jo daiteke. Hortaz, ingurune globalizatu batean kokatzen diren immigrazioek eraldaketa sakonak eragiten dituzte, bi norabideotan:

- ✓ Batetik, etorkinen jomuga diren gizarteek balio eta portaera berriak ikasi eta barneratu beharko dituzte. *Euskal Herriko hizkuntza-egoerari dagokionez, bertako biztanleriaren elebakartasun eta elebitasunean eragiten du, bete-betean, hizkuntza-eleaniztasunaren aldarria mahai gainean jarritz: Erdal elebakarren hizkuntza-eskema apurtzen du.*
- ✓ Bestetik, etorkinek berek gizarte horretara egokitu beharra dute, gizarte arau, balio eta ohitura berriak ikastera behartuta daude. *Etorkinek lagundu edo oztopa dezakete neurri handian euskara berreskuratze eta normaltzearen aldeko ahalegina.*

Jakina denez, ikaskuntza horretan egokitze arazoak agertzen dira askotan. *Euskarari dagokionez ere, etorkin berriak hizkuntza-auziaren muinean daude, hainbat arrazoirengatik; adibidez:*

---

<sup>7</sup> EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice\\_c.htm](http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_c.htm)).

*Zelako euskaldunak, halako kopurua..., edo Soziologiaren erantzuna*

- ✓ *Gaztelera ezinbestekotzat eta euskara bigarren mailakotzat joz, azken hau ikasi beharrik ez dutela ikusten baitute, eskualde gehien-gehienetan.*
- ✓ *Euren umeek erdara hutsezko ghettoetan hezteko arriskua dute.*

## **Euskalgintza, jakinaren gainean**

Bide berriak irekitzen eten gabe arian ari den euskalgintza, jakinaren gainean dago gure gogoeta honen muina den atsotitzaz: *zer ikusi hura ikasi!* ...baita hizkuntzari dagokionez ere.

Horren adibidea da gurasoentzako *Etxean zer ikusi, hura ikasi*<sup>8</sup> ize-neko liburuxka, helburu oso jakin batekin prestatu eta kaleratu zena:

*Helburua: familia esparruan eragitea. (...) Orain arteko interbentzio gehienek bikotekidearen motibazioan (sentsibilizazio-kanpainak...) eta hizkuntza gaitasunean (ohiko eskolak, talde bereziak...) eragitea izan dute helburu. Pilotu honek, horietan eragiten jarraitzeaz gain, familiaren harreman sarearekin lotutako euskararen erabileran eragin nahi du. Erabilera hori, hiru kontzeptu hauetan bereiziz: bikote-hizkuntza, ama-hizkuntza, familia-hizkuntza.<sup>9</sup>*

Alegia, *bikote-hizkuntza, ama-hizkuntza, familia-hizkuntza* euskaldunago baten alde indarra egitea, aldi berean familia-eredu horiek umeen hizkuntza-sozializazioan izan dezaketean eragina ere kontuan hartuz.

---

<sup>8</sup> Elortza, X. eta Mungia, A. (2006) *Etxean zer ikusi, hura ikasi*. Habe. Donostia.

<sup>9</sup> Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2006) Transmisioa indartzeko bide berriak urratzen. In Azpeitiko Euskara Patronatoa: *Erabil.com* ([http://www.erabili.com/zer\\_berri/berriak/1143796768](http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1143796768)).

Malores Etxeberriak ezin argiago eta modu didaktikoagoan azal-tzen digu arrazonamendu osoaren nondik norakoa:

*Horrela, maiz jabetzen gara gurasook hutsune handi sama-rrak ditugula gure eguneroko jardueran eta gure diskurtsoak ez datozela askotan bat praktikan egiten dugunarekin.*

*Etxea eta eskola dira haurraren heziketarako bi zutabeak eta biek zentzu berean joan beharra daukate heziketa horrek emai-tzarik emango bada. Haurrak erreferentzia bertsuak izan behar ditu batean eta bestean, nola jokatu jakiteko, bere inguruak zer baloratzen duen eta zer ez ezagutzeko... azken batean, bere nor-tasuna osatzen joateko.*

Alegia, gauza bat esan, baina beste bat egiten digula, dio Etxebe-riak, eta horrela jokatuta hizkuntza-balioak ez zaizkie umeei ongi helarazten; kontraesanek haurrek duten eredia lausotzen dutelako, eraginkortasuna erabat galduz. Diskurtso eta jardueraren arteko koherentzia behar da, ezinbestez, sozializazioa eraginkorra izango bada:

*Erreferentzia eta balore horiek balioa izan dezaten praktikan jartzen direla ikusi behar du haurrak. Areago, diskurtsoa ez badator praktikaz lagunduta, kontrako eragina izan dezake eta haurra noraezean jartzea besterik ez da lortuko; baloretzat eman zaiona gutxiestera iritsiz. (...)*

*Koherentzia kontuan gurasook asko daukagu ikasteko. Esko-laren esku uzten dugu gehiegitan gure haurren heziketa; diskur-tso zuzenak darabilzkigu jendaurrean, baina behin etxeko atea itxitakoan kostatzen egiten zaigu hitzari eustea.*

Etxeberria sozializazioaz, oro har, aritu da honaino, baina iras-kaspen bera zabalduko du hizkuntza-sozializaziora hurrengo lerroetan:

*Zelako euskaldunak, halako kopurua..., edo Soziologiaren erantzuna*

*Hizkuntza kontuak ez dira panorama honetatik kanpo gelditzen. Eskolaren esku uzten dugu maizegi gure haurren euskalduntzea, motibazioa, euskararekiko sentsibilizazioa. Hizkuntza, eskolan landu beharreko balore bat balitz bezala. Gurasoon praktika, ordea, alden du egiten da askotan erabiltzen dugun diskurtsoetik. Gurasook badugu gogoeta egiteko premia gai guzti hauekiko.<sup>10</sup>*

Berriro diogu: *zer ikusi hura ikasi!* ...baita hizkuntzetan ere, eta diskurtso guztien gainetik.

*Usteak erdia ustel* esan ohi da eta, horregatik, hobe dugu datu enpirikoak eskuan hartu zerbait ziurtzat eman nahi dugunean. Horretarako bi ikerketaren informazioak izango ditugu aztergai, hizkuntza-sozializazioak haurren hizkuntza-pertzepzioan zenbateraino eragiten duen ikusi ahal izateko.

### **Umeez ikusten dutena: zein hizkuntza doakie hobeto?**<sup>11</sup>

Ikasleek hizkuntzak nola hautematen dituzten ikusteko helburuarekin prestatutako galdetegi bat erabili zen, LMH6ko ikasle batuen hizkuntzen inguruko irudikapenak jasoz.<sup>12</sup>

Proba horretan, ikasleei 17 irudi eman zitzaizkien eta horietako bakoitzean agertzen zen irudiari zein hizkuntza zegokion hobeto

---

<sup>10</sup> Etxeberria, M. (2006) Etxean zer ikusi, hura ikasi. In Azpeitiko Euskara Patronatoa: *Erabil.com* ([http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1145837009](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1145837009)).

<sup>11</sup> Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat landutako ARRUE programaren atal bat da. Zehatzago, 2005-2006 ikasturteko datu bilkerako datuak dira, LMH6ko 80 bat talde, 50 bat ikas-txetakoak (1.300 ikasle) kontuan hartu ziren (Soziolinguistika Klusterrak, 2009).

<sup>12</sup> Galdetegi hau “*Etorkizuna aurreikusten 99*” ikerketan erabili zen lehen aldiz (Berrio-Otxoa, 2000: 195-201).

erantzun behar zuten: “*Gaztelania hobeto*”, “*Edozein hizkuntza berdín*”, “*Ez euskara ez gaztelania, ingelesa hobeto*”, “*Euskara edo gaztelania, bata zein bestea*” eta “*Euskara hobeto*”.

Galdetegian agertzen ziren 17 irudiei izenak jarri zitzaizkien estatistikoki tratatu ahal izateko<sup>13</sup>, honako hauek dira (Txartelean agertzen diren ordena berean):

Satelitea	Eskola	Bikotea
Musika	Seme-alabak	Familia
Agureak	Kanpina	Eliza
Albistegia	Hizlaria	Fabrika
Nekazaria	Ordenagailua	Haginlaria
Baserria	Futbola	

---

<sup>13</sup> Ikasleek bost erantzunetako zein aukeratu erabakitzeko zuten estimulu bakarra iruditxo zen, izan ere, ez zitzaien izenik jarri horietako bakoitzari eta proba pasa behar zuten irakasleei espresuki eskatu zitzaien ez emateko ikasleen erantzuna bidera zezakeen inongo azalpenik, bakoitzak irudian ikusi zuena zer zen interpretatuz.

Taldea: .....

Ikaslearen kodea: .....

## C GALDETEGIA



Zure ustez zein hizkuntza  
doakie hobeto ondoko egoera,  
toki edo eta pertsona hauei?

- A** Euskara hobeto
- B** Gaztelania hobeto
- C** Euskara edo gaztelania, bata zein bestea
- D** Ez euskara eta ez gaztelania, ingelesa hobeto
- E** Edozein hizkuntza berdín



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E





A   
B   
C   
D   
E



A   
B   
C   
D   
E

### Zein hizkuntza doakio hobeto?



	satelitea	musika	fabrika	hizlaria	albisteak	ordenagailua	haginlaria	bikotea
Gaztelaniaz hobeto	27,77	26,72	39,40	38,94	32,45	35,70	37,51	34,57
Ez euskaraz, ez gaztelaniaz, ingelesez hobeto	14,49	20,68	2,49	4,83	1,66	5,43	0,68	1,74
Edozein hizkuntza berdin	27,47	26,49	21,81	19,62	17,36	18,94	16,08	18,72
Euskara edo gaztelania, bata zein bestea	21,43	16,60	23,70	22,72	32,38	22,64	25,74	23,62
Euskaraz hobeto	8,83	9,51	12,60	13,89	16,15	17,28	20,00	21,36
GUZTIRA	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

*Zelako euskaldunak, halako kopurua..., edo Soziologiaren erantzuna*

	futbola	kanpinga	eliza	familia	seme-alaba	agureak	eskola	nekazaria	baserria
Gaztelaniaz hobeto	33,36	22,04	29,28	20,68	22,19	28,23	10,04	18,87	9,13
Ez euskaraz, ez gaztelaniaz, ingelesez hobeto	2,34	1,96	1,21	1,13	0,75	0,68	2,42	1,21	0,60
Edozein hizkuntza berdin	15,02	19,77	17,66	16,30	16,23	10,26	17,43	12,91	5,13
Euskara edo gaztelania, bata zein bestea	25,36	27,40	22,72	22,79	21,43	18,94	21,13	16,75	9,43
Euskaraz hobeto	23,92	28,83	29,13	39,09	39,40	41,89	48,98	50,26	75,70
GUZTIRA	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00

Ikasleek aukeran zituzten bostetatik, “*Euskara hobeto*” eta “*Gaztelania hobeto*” oso erantzun hautatuak izan dira. Jarduera guztietan, bost erantzun posibleetatik bi hauetako bat da erantzunik hautatuena.

Gaztelaniazko erantzunen portzentajea, euskarazkoen bikoitza edo gehiago da jarduera hauetan: Fabrika (%39), Hizlaria (%38), Ordenagailua (%35), Albistegia (%33), Satelitea (%27) eta Musika (%26). Gaztelania euskara baino gehiago aipatu da, baina bikoiztera iritsi gabe, beste hauetan: Haginlaria (%38), Bikotea (%34), eta Futbola (%33).

Aldiz, euskarazko erantzunen portzentajea, gaztelaniazkoen bikoitza edo gehiago da jarduera hauetan: Baserrian (%77, ia erabat), Nekazarian (%50) eta Eskolan (%49). Eta euskara gehiago aipatu da, baina gaztelaniazkoak bikoiztera iritsi gabe, beste hauetan: Aguretan (%42), Seme-alabetan (%39), Familian (%39) eta Kanpinean (%29).

Kasu berezia Eliza irudiarena da, maila berean hautatu baitituzte biak: euskara eta gaztelania.


Hortaz, grafikoko eta tauletako datuak ikusita, badirudi ikasleek ez dutela edozein modutan erantzun, bizi duten gizarteko hizkuntza-erabileraren logika baten arabera baizik. Badirudi nerabeen erantzunek nahiko ongi islatzen dituztela gizartearen erabilerako eta hiz-

kuntza-hauturako gizarte-arau esplizitu zein inplizituak, eta hizkuntzen egungo gizarte-irudikapenak nahiko ongi adieraz ditzaketela. Azken finean, sozializatuak izan diren gizataldeen hizkuntza-egoeraren arabera erantzun dute nerabeek.

**Irudien hautemateak, lehen hizkuntzaren arabera:** Urrats bat gehiago emanez, txikitatik jaso duten lehen hizkuntza bata edo bestea izan, ikasleek gizarteko jarduera eta pertsonaiak hautemateko moduaren aldakortasunean sakondu nahi da. Horrela, arestian aipatu den Lehenengo Sozializazioaren eta Bigarren Sozializazioaren arteko aldea, hizkuntzaren ikasketan kognitiboan egon daitezkeen diferentzietatik harago, hizkuntzekiko pertzepzioan ere nola islatzen den aztertu nahi da.

*Lehen hizkuntzak* irudiak hizkuntza batekin edo bestearekin erlazioatzeak hautematerakoan eragiten duen aldakortasun hori islatu nahian, galdetegiko 17 irudietatik hiru hautatu ziren, emaitza orokorretan izan dituzten datuak eta irudikatzen dituzten gizarte esparruak kontuan hartuz.

**Irudien hautemateak Lehen hizkuntzaren arabera**



IRUDIAK	LEHEN HIZKUNTZA (gurasoek aitortua)			
	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Euskara	GUZTIRA
Familia	2,48	3,19	3,59	2,97
Eskola	3,09	3,39	3,45	3,26
Hizlaria	2,14	2,37	2,54	2,31

Grafikoak eta taulak biltzen dituzten datuei erreparatuz, lehen begiradan ikus dezakegu lehen hizkuntza zenbat eta euskaldunagoa izan, irudi bakoitzari zein hizkuntza doakion hobeto aukeratzean batez besteko gero eta altuagoa izaten dutela, hau da, aukera gero eta euskaldunagoa egiten dela. Horrez gain, ikus daiteke hiru irudietako bakoitzaren datuen aldakortasunak bere berezitasunak dauzkala, irudiak ordezkaten duen gizarte esparruaren arabera.

Lehen hizkuntzaren arabera jasotzen duen puntuazioa gehien aldatzen den irudia **familiarena** da (2,48tik 3,59ra). Emaidza honen bidez, suposa genezake familiaren irudiari hobeto doakion hizkuntza aukeratzekoan ikasle bakoitzak bere familiaren hizkuntza ohituren arabera jokatu duela. Honela, lehen hizkuntza gaztelania izan dutenek, gaztelaniarekin gehiago lotu dute familiaren irudia. Familia euskaldunetakoek, ordea, euskararekin lotu dute gehienbat. Eta bai euskara eta bai gaztelania lehen hizkuntza bezala izan dituztenen kasuan, erdi bideko puntuazioa izan dute.

**Eskolaren** irudiarekin gertatzen denak ere aztertutako ikasleek bizi duten errealitatearekin lotura koherentea izan lezake. Izan ere, eskolaren irudiak batez beste jaso duen puntuazioa ez da asko aldatu (3,09 eta 3,45 artean), ikaslearen lehen hizkuntza dena delakoa izanda ere.

Azkenik, hirugarren irudia **Hizlariarena** da. Irudian ikusten dena jendaurrean hitz egiten ari den trajez jantzitako gizon bat da, beraz, esan dezakegu arlo publikoarekin lotuta dagoen jarduerak ordezkatzeko dituela ikasleek euren gertuko egunerokotasunean zuzenean bizi ez dituzten jarduera publikoak. Irudi honen batez besteko puntua-

zioak ere, eskolarenak bezala, aldakortasun txikia azaltzen du ikasleen lehen hizkuntza aldatu ahala (2,14 / 2,54). Hizlariaren irudiaren puntuazioa, beste askorekin alderatuz gero, nahiko baxua da (2,31), hau da, gaztelaniarekin lotzeko joera euskararekin lotzekoa baino indartsuagoa dela. Hortaz, euskara lehen hizkuntza izan duten ikasleek ere, neurri handi batean, jendaurreko jarduera publikoei gaztelera hobeto doakiela irizten diotela ondoriozta genezake.

Bistan da, beraz, umeak sozializatuak izan diren hizkuntza-bal-dintzen arabera, euren hizkuntza-irudikapen eta pertzepzioak ere ezberdinak eta, logika baten arabera, koherenteak direla.

### **Umeek ikusten dutena: zer ikusi, hori irudikatu**<sup>14</sup>

Beste ikerlan batean, 13-14 urteko gaztetxoekin metodologia kualitatiboa erabili zen euren hizkuntza-pertzepzioa ezagutzeko asmoz.<sup>15</sup>

Hona hemen ikerlan honen ondorioetatik aukeratutako pasarte batzuk, EAEko gazteei dagokienez:

*...gazteek euskara euren ingurunearen eta komunitatearen hizkuntza dela onartzen dute orokorrean, eta diskurtso gehienek oinarri dela esan daiteke.* (Hernandez, 2000: 78)

Alegia, abiapuntua, oro har, euskararen onarpena da. Hala ere, jarrera orokor horretatik harago, hasten dira ezberdintasunak agertzen; ezagutzan bertan, hain zuen:

---

<sup>14</sup> Hernandez, J. M. (2000). Gaztetxoek hizkuntzekiko diskurtsoak eta bizipenak. In Martínez de Luna, I. eta Berrio-Otxoa, K. (Zuzendariak). *Etorkizuna Aurreikusten 99: Gaztetxoak eta euskara*. Gasteiz. Martínez de Luna (Argit.) (9-96).

<sup>15</sup> Lan horretan 6 eztabaida-talde (EAEEn eta Nafarroan hiruna talde) osatu eta partaideen iritzia jaso da, hurbilpen kualitatiboak ematen duen sakontasuna baliatuta. Sei talde horiek, bestalde, ikastetxe publiko eta pribatuen artean modu orekatuan banatu dira. Hizkuntza-ereduei dagokienez, bina talde landu dira eredu bakoitzeko, alegia A, B eta D eruedetan.

*Zelako euskaldunak, halako kopurua..., edo Soziologiaren erantzuna*

*...eredu eta ikastetxe tipologia ezberdinen bitartez, euskararen hedatze-prozesua ziurtatu dute. Halere, ezagutza finkatzeke dago eta egoera hori euskararekiko motibazioetan eta euskararen erabileran izugarri antzematen da: ikaste-prozesua era ezberdinetakoa izan daitekeenez, euskararen erabilerak eta euskararekiko sentimenduak modu askotako forma har dezakete, anbiguotasuna bultzatuz.*

*Egoera nahasi horretatik sortzen dira egun gazteen artean aurki daitezken kontraesan nagusiak: euskara jakin, baina ez erabili; euskara ondo jakin ez, baina motibazio altua adierazi; euskararekiko motibazio altua izan, baina euskara ikasi ez... (Hernandez, 2000: 78-79)*

Euskararen gaitasun ahuletik eta kontraesan ugari horietatik abiatuta, ezin espero hizkuntza horren erabilera hedatua eta sendoa. Gazteek euskara erabiltzeari uko egiten diotenean hainbat arrazoi argudiatzen dituzte harremanak erdaraz izateko:

- ✓ *Ezagutza maila: ezagutza maila nahiko ez edukitzea, oztopo izan ohi da euskara elkarrizketetan aukeratzeko.*
- ✓ *Ingurunea (familia, lagunartea, auzoa, hiria): ingurune gaztele-radun bat izatea oztopo handia da gazteen euskalduntzen prozesuan.*
- ✓ *Ingurugiroaren presioa: gazteek esaten dutenaren arabera, hainbat leku edo egoeratan euskaraz egitea gatazkatsua izan daiteke. Horren beldurragatik gazteleraz egitea erabakitzen dute...*
- ✓ *Ohiko harremanetan ezarritako ohiturak: hizkuntz ohiturek gaztelerara jotzen dute.*
- ✓ *Euskarak ematen duen marka ekidin nabia: ingurunea, hiria eta gizartea gazteleraduna esaten dute. (...) ...testuinguru horretan euskaraz aritzeak edo adierazteak marka edo ñabardura bat ezar-*

*tzea esan nahi du. (...) Euskara ñabardura bihurtzen den unetik bere (erdal) inguruko filosofian, itxuran, izaeran edota egoteko moduan hartzen duten formak ez datoz bat [casero, borroka...].*

Gainera, gaztetxoek ongi antzematen dute hizkuntzen merkatuan euskarak duen kokapen erlatibo ahula, pertzepzio horrek euren hizkuntza-hautuan zuzenean eraginez:

*...hizkuntz handien bedapenaren garaian bizi dira gazte hauek eta gaztelera, frantsesa, ingelesa eta alemana eskura dituzte. Hizkuntza horiek boteretsuak, hiritarrak, konplexuak, irekiak, zabalak, eta aukera ugarikoak izango lirateke. Gauzak horrela, euskarak suposatzen duen ñabardura ez da kasu gehienetan erakargarria gertatzen, gazte unibertsoan hizkuntza txikitzat, sinpletzat, mugatutzat eta gatazkatsutzat hartze baita.*

*(...) Alde horretatik, euskararen erabileraren alde egiteak euskararekiko konpromiso berezia adierazten du. Gazte hauek esango luketen bezala, “euskararen ezagutzak berdinak egiten bagaitu, euskararen erabilerak gure arteko ezberdintasunak marrazten ditu” (Hernandez, 2000: 79-81)*

Izan duten sozializazioak ez die eskaini gaztetxo horiei euskararen alde egiteko aukera aserik, baizik eta erabat baldintzatua hizkuntza gutxitua izatearen zama astunaz.

## **Hausnarketak eta ondorioak: Euskaldunen kopurua (II)**

Hasieran esan dugun *Euskaldunak, zenbat?* galderari erantzuteko, aurretik zehaztu behar dela euskaldun izatea zer den.

Ahalegin horretan, sozializazio prozesua hartu dugu bidaidetzat, prozesu horrek hizkuntza bateko hiztun bihurtzearekin dituen loturak eta antzekotasunak bilatuz. Horren ondorioz, onartu dugu giza-

talde batera jaiotzea –sozializazioa– eta hizkuntza-talde bateko kide –hiztun– bihurtzea estuki lotuta doazela eta banaezinak direla.

Axioma horretatik abiatuta, euskaraz sozializatzearen prozesu kognitiboa, identifikazio prozesua eta prozesu afektiboa nola edo zenbateraino gauzatzen diren aztertuko dugu, hizkuntza horretan sozializatzen direnen eskarmentuari ere erreparatuz.

1. Prozesu Kognitiboa ez da erabat osatzen, nahiz eta “...azken 15 urteetako bilakaerari begiraturaz gero, *elebidunen hazkundea gazteenetatik ari da [den] zabaltzen EAEn, Nafarroan zein Iparraldean.*”<sup>16</sup> Baina, sozializazioaren ikuspuntutik begiratuta, prozesu horrek hainbat akats ditu:

- ✓ Jakinaenez, Euskal Herriko ume eta gazte asko ez dira euskaraz ikastera bideratuak izaten; alegia, sozializazioaren prozesu kognitiboa ez da oraindik kasu guztietara zabaldu eta *erdaldun elebakarrak* %58,9 dira oraindik ere.
- ✓ Euskara ikastera bideratuak izan diren asko ez dira euskaldundu eta, horren ondorioz, *elebidun hartzaileak* %15,4 izatera iristen dira.
- ✓ Hortaz, Euskal Herriko biztanleria osoari so eginez gero, *elebidunak* (%25,7) baino ez dira.
- ✓ Soilik *elebidun* horiek (%25,7) kontuan hartuz gero –hau da, prozesu kognitiboa bete omen dutenak–, zalantzak agertzen zaizkigu prozesu horren kalitateaz eta osotasunaz. Izan ere, gaitasun erlatiboari erreparatuta, ezaguna da *erdal elebidunek* (*elebidun* guztien %38,9) eduki dezaketen zailtasuna euska-

---

<sup>16</sup> Atal honetako datu kuantitatiboen iturria: Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza (Eusko Jaurlaritza, 2008: 201-224).

raz eroso sentitzeko; bestela esanda, *erdal elebidun* horiek prozesu kognitiboa ez dute *erlatiboki* ongi bete; ez behintzat erdarazkoa bezain ongi.

Prozesu kognitiboari dagokionez, zein da, beraz, euskaldunen proportzioa?

✓ *Elebidunak* (%25,7) gehi *elebidun hartzaileak* (%15,4), era horretan % 41,1 lortuz?

✓ *Elebidunak* (%25,7) baino ez?

✓ Edo *elebidun* guztien artetik, soilik euskara erdara bezain ongi edo hobeto dakitenak, alegia, *elebidun euskaldunak* (biztanleriaren %7,9) eta *elebidun orekatuak* (%7,8)? (Euskal Herriko biztanleriaren %15,7 batuz).

2. Identifikazio Prozesua anbibalentea da, hainbat ikuspuntutatik aztertuta:

✓ Batetik, euskaraz jakinda edo jakin gabe ere, bere erabilera sustatzeari buruz aldeko jarrera adierazten dutenak, honakoak dira: %64,7 EAEn, %41,2 Iparraldean eta %37,7 Nafarroan. Aldiz, euskara sustatzearen kontrakoak %11 EAEn, %17,6 Iparraldean eta % 34,2 Nafarroan. Gainontzekoek ez dute jarrera garbirik adierazten. Hortaz, aldekotasuna EAEn gailentzen den bitartean, Iparraldean eta, batez ere, Nafarroan, ez dago hain garbi.

✓ Bestetik, EAEko gaztetxoek eskainitako informazioak argi-ilunak eskaintzen dizkigu; hona hemen adibide batzuk:

- Baserria, nekazaritza eta eskola gehienbat euskarari lotzen badira ere, fabrika, hizlaria eta ordenagailua bezalako kontzeptuak lotuago agertzen dira erdarari. Eta, adibidez, ordenagailua eskola bezain erreferentziala eta garrantzitsua da (edo ia) ume guztientzat edo gehientzat. Hortaz,

gaztetxoen bizitzan pisu erreferentzial handia duten eremuetan euskarari zein gaztelaniari egiten diote lekua. Argi dago gizartean nagusitzen den egoera diglosikoan sozializatu direla ume horiek, ez euskararen komunitate osasuntsu batean.

- Euskararen aldeko hizkuntza-irudikapenak euskararen aldekoagoak dira familian (*Lehenengo Sozializazioko* agente nagusia) euskaraz ikasi/sozializatu direnen artean, euskaraz eta gaztelaniaz, batera, edo erdaraz soilik ikasi/sozializatu direnen artean baino. Hau da, euskararekiko identifikazioan modu osatuagoan sozializatu direnak gutxiengoak dira.<sup>17</sup>
- Gazteek, orokorrean, euskara onartzen dute, euren inguruneke eta euren komunitateko hizkuntza bezala. Baina, horietako askok uko egiten diote euskara erabiltzeari, ingurune sozialarekin erlazionatutako zenbait arrazoi direla medio.

Identifikazio Prozesuari dagokionez, zein da, beraz, euskaldunen proportzioa? Auskalo!

3. Prozesu Afektiboa da gehien zabaldu eta garatu dena, azken hamarkadotan: gaur egun, euskararekiko motibazioa oso hedatua dago eta, maila abstraktuan, gizartean ondo ikusita dagoen hizkuntza da. Eskizofrenia zantzuak agertzen dira, hala ere, aldekotasan abstraktu horretatik maila kognitibora (*erdaldunek* eta *elebidun hartzaileek* ikastera) edo identifikaziora (*elebidunek* harremanetarako hizkuntzatzat hartzea) jauzi egiten denean. Ez

---

<sup>17</sup> Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %78,7k erdara dute lehenengo hizkuntza. (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2008: 207).

da, ez, funtsik gabeko bertsoa, euskararen biziraupen osasuntua aldarrikatze aldera, kanta batek jasotzen duena: “*maite nazazu guttiago, erabil nazazu gehiago*”

4. Aipaturiko hiru prozesuekin batera, sozializazioak norberaren herentzia biologikoa eta eskarmentua hartzen ditu kontuan. Biologia eta genetika alde batera utzita, hizkuntza bateko eskarmentua gogoeta honen muinean kokatzen da: *elebidunek* euskaraz lortutako gaitasunaren maila erdaraz dutenaren parekoa edo altuagoa denean, euskaraz jarduteari buruzko eskarmentua atsegina izango zaie, gehienbat. Baina ez da bera izango, euskaraz gaitasun mugatua dutenen kasuan<sup>18</sup>; adierazpen mugatua eta ezintasuna sentitu dituztenen bat-bateko eta berezko joera ez da izango hizkuntza horren erabilera saihestera? Egoera deseroso horiei buelta emateko ahalegin bat egiteko oso motibazio handia behar da eta koiuntura orokorra ez da horretarako egokiena: post-materialismoaren kulturak berehalako saria eskatzen du, eta halako saria hizkuntza unibertsalek eskaintzen dute, gehienbat, ez euskarak.

Hausnarketa horietatik abiatuz, ondorio batzuk ateratzera iritsi gaitezke, laburki bada ere; honakoak, hain zuzen:

1. ONDORIOA: Prozesu kognitiboa ez da erabatekoa, ez eta guztiz eraginkorra ere, batez ere *Lehenengo Sozializazioa* erdaraz burutzen dutenen artean.
2. ONDORIOA: Kasu horietan, *Bigarren Sozializazioan* zehar gaitasun nahikoa lortuta ere, sozializazio kontzeptuak bere baitan daramatzen identifikazio prozesua eta prozesu afektiboa

---

<sup>18</sup> Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko elebidunen (euskaldunen) %38,9 dira *erdal* elebidun, hots, erdarazko gaitasuna euskarazkoa baino handiagoa dutenak. (Eusko Jaurlaritzak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2008: 205).

kasu askotan ez daude bermatuta eta, horien ezean, sozializazioa ez da (osorik) burutu. Izan ere, ikusitako datuek zalantza handiak sortarazten dizkigute haur eta gaztetxo euskaldun askok euren burua euskaldun izatearekin (euskaraz jardutearekin) identifikatzen ote duten.

3. ONDORIOA: Eta beste horrenbeste esan daiteke maila afektiboan; hau da, *Bigarren Sozializazioan* zehar gaitasun nahikoa lortuta ere, euskara eskolako ikasgai hutsaltzat hartuz gero, adibidez, galdetu behar dugu ea posible ote den hizkuntza hori maitatzera iristea. Egoera hori gertatzen da, berriz diogu, batez ere euskara eskolan eta bigarren hizkuntza gisa ikasi dutenengan.
4. ONDORIOA: Informazio horietatik eratortzen den euskaldunen kopuruak apala izan behar du, ezinbestez, sozializazioaren baldintza guzti-guztiak ondo betetzen dituzten elebidunak oso gutxi baitira.
5. ONDORIOA: ikusi ditugun hiru prozesu horien (prozesu kognitibo, identifikazio prozesu eta prozesu afektibo) eta norberaren eskarmentuaren konbinazioaren bitartez gertatzen da euskarazko sozializaziotik, euskal hitzun jakina eta berezitua sortzen da: maila eskasekoa, ezinbestez. Galdera da: baldintza horietan erdizka euskaldundu diren guztiak euskalduntzat jo daitezke ala sasi-euskalduntzat?

Edonondik begiratzen dela ere, panorama iluna, etsigarria? Ez, derrigorrez; kontua da, euskararen botilaren zer zatiri erreparatzen diogun: erdi beteari ala erdi hutsik dagoenari. Izan ere, aintzat hartuz gero euskararen egoera ez dela normalizatua, lehenago jaso diren hainbat gabezia eta hutsune ulergarritzat jo beharko ditugu. Bestela esanda, hizkuntza gutxitu orok dituen ajeak dira eta, larriak izanda ere, ez apartak edo bereziak.

Hortaz, euskarazko sozializazioaren barne dimentsioak gero eta osatuagoak eta eraginkorragoak badira, une honetako sozializazioan gabezia ugari egonda ere, gaitz erdi!

Horregatik: *Euskaldunak, zenbat?* edota *Zelako euskaldunak, halako kopurua* modu dinamikoan (ere) begiratu behar da: gaur egungo euskaldunak eskasak badira, kalitatez, eta urriak, kopuruz, pentsatu behar dugu nolakoak diren duela hamarkada batzuk zeudenekin alderatuta? Eta, garrantzitsuagoa dena, nolakoak diren geroan sortuko direnekiko?

Gaurtik hasita, euskararen botila guztiz betetzeko aukera badugu. Eta euskaldun petoen kopurua ederki ugaritzekoa ere.

## **Bibliografia eta erreferentziak**

BERGER, P. eta LUCKMANN, Th. (1968). *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires. Amorrortu.

BERRIO-OTXOA, K. (2000). Gaztetxoak eta hizkuntz gaitasuna, erabilerak eta hautapena. In *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Gasteiz. Martínez de Luna (Arg.).

ELORTZA, X. eta MUNGIA, A. (2006). *Etxean zer ikusi, hura ikasi*. Habe. Donostia.

ETXEBERRIA, M. (2006) Etxean zer ikusi, hura ikasi. In Azpeitiko Euskara Patronatoa: *Erabili.com* ([http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1145837009](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1145837009)).

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice\\_c.htm](http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_c.htm)).

Eusko Jaurlaritzak. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2006) Transmisioa indartzeko bide berriak urratzen. In Azpeitiko Euskara Patronatoa: *Erabili.com* ([http://www.erabili.com/zer\\_berri/berriak/1143796768](http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1143796768)).

Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

Fernández Palomares, F. (koord.) (2003). *Sociología del a educación*. Madrid. Pearson Educación.

García Ferrando, M. (coord.) (2005). *Pensar nuestra sociedad global*. Valencia. Tirant lo Blanch.

Hernandez, J. M. (2000). Gaztetxoek hizkuntzekiko diskurtsoak eta bizipenak. In Martínez de Luna, I. y Berrio-Otxoa, K. (Zuz.). *Etorkizuna Aurreikusten 99: Gaztetxoak eta euskara*. Gasteiz. Martínez de Luna (Argit.) (9-96).

Rocher, G. (1980). *Introducción a la sociología general*. Barcelona, Herder.

Soziolinguistika Klusterra (2009). *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

